


Euskal AEko industri jarduera %0,8 gehitu zen 2019ko ekainean

Industri produkzioaren indizeak %0,7ko gehikuntza izan du 2019ko lehen sei hilekoan

Eustaten datuen arabera, 2019ko ekainean %0,8 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan 2018ko hil beraren aldean. 2019ko lehen sei hiletan %0,7ko hazkundea izan da 2018ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,4 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2019ko maiatzarekin alderatuta.



2019ko ekaineko indizearen bilakaerak, 2018koaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Ekipoko Ondasunak* %0,2 jaitsi dira eta *Bitarteko Ondasunak* %0,1, baina *Energia* %4,8 igo da eta *Kontsumoko Ondasunak*, guztira, %2,6 gehitu dira. Horien barnean, *Kontsumoko Ondasun Iraunkorrak* dira igoeraren eragileak, %15,2 gehitu baitira, zeren *Ez-iraunkorrak* ez diren mugitu (%0,0).

2019ko ekaineko hil arteko aldakuntza, 2019ko maiatzaren aldean, oso bestelakoa izan da industri talde handietan. *Energia* %2,8 igo da, baina *Ekipoko Ondasunak* %1,6 jaitsi dira eta *Bitarteko Ondasunak* %1,1 murriztu dira. *Kontsumoko Ondasunak*, guztira, %0,4 jaitsi dira, zeren *Ez-iraunkorrak* %1,2 jaitsi diren eta *Iraunkorrak* %2,7 igo.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2019ko ekainean, urte artean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %27,1eko igoerarekin; *Material eta ekipo elektrikoa*, %7,9ko hazkundearekin; eta *Kautxua eta plastikoa*, %1,7ko igoerarekin.

Alderantzizko zentzuan, jaitsierarik handienak, sektore hauetan: *Garraio-materiala*, urte artean %5,0ko murrizketarekin; *Zura, papera eta arte grafikoak*, %3,0ko jaitsierarekin; eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak*, %2,5eko murrizketarekin.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	27,1
09 - Kautxua eta plastikoak	1,7
13 - Makineria eta tresneria	0,0
14 - Garraio-materiala	-5,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	7,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, ekaineko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian, non %2,5 igo den, eta Gipuzkoan, %1,6ko igoerarekin, baina Araban jaitsi da %3,0.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Eka2019 / Eka2018	A(Eka2019) / A(Eka2018)(*)	Eka2019 / Mai2019	Mai2019 / Api2019
Indize orokorra				
Euskal AE	0,8	0,7	-0,4	1,8
Araba/Álava	-3,0	-3,8	-0,9	3,6
Bizkaia	2,5	3,2	-1,1	0,7
Gipuzkoa	1,6	1,2	0,6	1,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	2,6	3,9	-0,4	1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	15,2	3,7	2,7	0,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,0	3,9	-1,2	1,5
Ekipo-ondasunak	-0,2	0,6	-1,6	5,0
Bitarteko ondasunak	-0,1	0,0	-1,1	1,1
Energia	4,8	1,3	2,8	-1,9

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62